

BEZEROEKIKO HARREMANA

Bezero berriak erakartzeko publizitatea erabiliko dugu, gure publizitatea egiteko enpresa bat kontratatuko dugu, adibidez, kartelak biodegradableak egiteko. Horretaz aparte, hainbat gauza eskaintzen ditugu, adibidez, laguntza pertsonala, bezero batek laguntza behar badu produktu zehatz baterako edo edozein zalantza argitzeko, gu beti prest egongo gara gure laguntza eta gure zerbitzuak eskaintzeko. Gure bezeroek beren eskabideak egin ahal izateko denda fisiko batera joan behar izan gabe, webgune bat izango dugu, edozein produktu kanal honen bidez eros ahal izateko, bezeroen zalantzak argitzeko eta gure enpresaren informazioa izateko. Gure bezeroak ahalik eta gustura egoteko, erregularki erosten duten bezeroei noizbehinka eskaintza bereziak eskainiko dizkiegu. Produktu berriak jasotzen baditugu, bezeroei korreo elektronikoz dendan dauden produktu berrien inguruan informatuko diegu, gure sare sozialetan iragarkiak egiteaz aparte. Bezeroek gure tailerrak proba ditzaten, dohainik tailer bat eskainiko diegu, errezeta ekologikoak egiten jakin dezaten.

